

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

GATAZKEN KUDEAKETA IKASGELAN LANTZEKO PROPOSAMENA

Egilea: Raquel Garcia Gimilio

Zuzendaria: Ana Arribillaga Iriarte

Leioan, 2017ko maiatzaren 31n

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala	4
1.1. Pertsona, arrazionaltasuna eta emozioak	4
1.2. Pertsona, balioak eta eskola	4
1.3. Zer da gatazka?	6
1.4. Gatazken kudeaketarako bideak	7
1.5. Gatazken kudeaketarako teknikak	8
1.5.1. Negoziazioa	8
1.5.2. Bitartekaritza	9
2. Metodologia	10
3. Lanaren garapena: inplementazio fasea	13
4. Emaitzak	19
5. Ondorioak	22
6. Erreferentzia bibliografikoak	23

ERANSKINAK

1. eranskina: pre-testa eta post-testa "Amaia eta Mikelen istorioa"	26
2. eranskina: indarkeria motak identifikatzeko fitxak	29
3. eranskina: bideoaren esteka eta gidoia	33
4. eranskina: negoziazio teknika lantzeko fitxak eta rolak	34
5. eranskina: pre-testaren eta post-testaren emaitzak	40

GATAZKEN KUDEAKETA IKASGELAN LANTZEKO PROPOSAMENA

Raquel Garcia Gimilio

UPV/EHU

Gaur egungo eskoletan ikasleek gero eta portaera bortitzagoa izaten dute, errendimendu akademikoa eta ikasgelaren giroa kutsatuz. Arazoari konponbide bat eman nahian, lan honetan gatazken kudeaketa ikasgelan lantzeko esku-hartze bat burutu da, ikasleengan nolabaiteko hobekuntza sortzeko asmoz. Horretarako, gatazkak kudeatzeko teknikak zein estrategia baketsuak gauzatu dira, eskolan elkarbizitza eredu onuragarria landuz. Izan ere, esku-hartzearen amaieran, ikasleengan aldaketa esanguratsuak sortzea lortu da. Hala ere, hobekuntza hori ez da ikasle guztiengan eman. Dena den, aintzat hartu behar da nortasunari dagokion aldaketak epe luzean izaten direla.

gatazka, gatazken kudeaketarako teknikak, elkarbizitza, eskola, esku-hartzea

Las escuelas actuales cuentan cada vez con más alumnos que presentan un comportamiento violento, contaminando así el rendimiento académico y el clima general del aula. Este trabajo se presenta para tratar de dar una solución al problema planteado, llevando para ello a cabo una intervención que se ocupa de la resolución de conflictos en el aula. Ésta tiene la intención de lograr una mejora en el comportamiento de los alumnos. Para conseguirlo, se han puesto en marcha tanto técnicas de resolución de conflictos como estrategias pacíficas logrando, al finalizar la intervención, cambios significativos. Sin embargo, esa mejora no ha sido posible en todos los alumnos. No obstante, debemos tener en cuenta que los cambios en la personalidad ocurren a largo plazo.

conflicto, técnicas para la resolución de conflictos, convivencia, escuela, intervención

In today's schools the number of students with violent behaviour is on the rise, contaminating the academic performance and the classroom atmosphere. In order to give a solution to the problem, an educational intervention to work on the resolution of conflicts in the classroom, with the intention of making an improvement in the students, has been carried out throughout this task. For that purpose, techniques for the resolution of problems and peaceful strategies have been undertaken. After all planned activities have been completed, it can be seen that significant changes have occurred. However, in spite of these changes, an enhancement for all students has not been achieved. Also, it must be taken into account that the changes related to personality occur in the long-term process.

conflict, techniques for the resolution of conflicts, coexistence, school, intervention

Sarrera

Gaur egun hezkuntza-komunitatean kezka sakona dago ikasleek gero eta portaera bortitzagoa izaten dute eta, ikaskuntza-giroari eta ikasleen ongizateari kalte eginez. Izan ere, irakasleriak egunero ikasleen arteko irainei, txantxei, erasoei eta jokabide aztoragarriei aurre egin behar die. Hori dela eta, irakasleen erronka nagusietariko bat indarkeria saihestea eta eguneroko gatazkak kudeatzea da.

Egoera horren aurrean, lan honek ikasgelan gatazkak kudeatzeko proposamena burutzea du xede. Proposamena Lehen Hezkuntzako 4. mailara zuzenduta dago, eta ikasleengan nolabaiteko hobekuntza sortarazteko gauzatu nahi da. Horretarako, ikasgelan elkarbizitza eredu onuragarria sortzeko ahaleginak egingo dira, errespetuan, tolerantzian, elkarbizitzan eta adostasunean oinarritutako estrategia eta teknikak erabiliz.

Hori guztia aurrera emateko, lehenengo eta behin, pertsona, emozioak, eskola, gatazkaren esangura eta gatazken kudeaketarako teknikak aztertuko dira. Atal horretan autore desberdinek emandako informazioa bilduko da, oinarri teorikoa sortuz. Ondoren, diseinatutako esku-hartzea azalduko da, jarduera guztiak deskribatuz, eta praktikan jartzerakoan ikasleek izandako erantzuna islatuz. Gero, proposamenean egindako pre-testaren eta post-testaren arteko aldeari erreparatuz, lortutako emaitzak adieraziko dira. Bukatzeko, emaitzetatik abiatuz, proposamenari dagokion ondorioak azalduko dira.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Pertsona, arrazionaltasuna eta emozioak.

Trias de Bes (2016) adituak adierazten du gizakiak aukeratzeko orduan bi indar motek parte hartzen dutela. Alde batetik, indar arrazionalak, gertakarietan eta probabilitateetan oinarrituta; eta bestetik, indar irrazionalak, hala nola, emozioak eta intuizioa. Beraz, gizakia arrazionaltasun eta emozioz osatuta dago (Cabezas, 2013).

Hala eta guztiz ere, emozioak gutxietsi eta arrazoiari balio handiegia eman dion kultura batean bizi gara. Hori dela eta, ezaugarri horiek eskolan ere islatu dira, arrazionaltasunak emozioarekin talka egiten duela ulertaraziz (Otero, 2016). Emozioak, ordea, ez dira oztopoa arrazoimenerako, eta eginkizun nabaria daukate arrazoiari erreparatuta, arreta bideratzen dutelako subjektuak garrantzitsutzat hartzen duenerantz (Cabezas, 2013).

Gizakia emozioa eta arrazoiaren dela gogoan izanda, Miras (1990) autoreak adierazten du irakaste-ikaste prozesuek, prozesu global bezala ulertuta, ikaslearen gaitasun kognitiboak eta gaitasun emozionalak kontuan hartu behar dituztela. Gainera, konpetentzia eta trebetasun emozionala lantzen duten programak gauzatu, garapen pertsonala eta emozioen kudeaketa hobea lor daiteke (Fernandez-Berrocal eta Ruiz-Aranda, 2008). Ildo horretan, Filellak (2015) azaltzen duen moduan, askotan, eskolan agertzen diren hainbat gatazka ezin dira era eraginkorrean ebatzi, emozioen kudeaketa txararen ondorioz. Hori dela eta, funtsezkoa da gaitasun emozionalean hezteak.

1.2. Pertsona, balioak eta eskola

Es imposible educar sin principios y sin valores, es impensable la existencia de una escuela de educación si no tiene unos principios, si en ésta no se respetan unos valores que den sentido a la idea del hombre, del mundo, de la vida, y del sentido de la historia (Rubies, 1980, Gomezek aipatua, 2007, 8. orr).

Autore horrek adierazitakoaren arabera, pertsonen hezkuntza integrala emateko, eskolak edukiaz haratago joan behar du, balioetan oinarritutako hezkuntza jorratuz. Juárez (2007) autoreak dio balioek axolagabekeriatik aldentzen gaituztela, eta bizitzan lehenetsunak ezartzeko mugitzen gaituztela. Gainera, jarrerekin oso lotuta daude, jarrerak balio pertsonalak eta sozialak adierazten dituzte eta (Rugarcia, 1999, Juárezek aipatua, 2007).

Gaur egun, gero eta jarrera arazo gehiago dituzten ikasleak daude. Izan ere, ikasleen arteko gatazkak gero eta jokabide bortitzagoen bidez adierazten dira, hezkuntza-komunitatean kezka sakona sortuz (Calvo, Marrero eta Garcia, 2004). Aintzat hartu behar da gizarte demokratiko eta pluraletan gatazka eta eztabaida gehiago izaten direla, bizitza eredu bat baino gehiago existitzen da eta. Hori dela eta, gaur egungo gizarteetan, gero eta beharrezkoagoa da balioetan oinarritutako hezkuntza aurrera eramatea, kohesio soziala manten dadin (Ortiz, 2003).

Beraz, eskolak landu behar dituen gaien artean, bizikidetzarako eta bakerako hezkuntza gai funtsezkoenatariko bat da, eskola elkartzeko eta elkarrizketarako gunea bilakaturik (Narejo eta Salazar, 2002). Horretarako, gatazken kudeaketarako hezkuntza egin behar da, elkarrizketarako, adostasunerako eta herritarren formakuntzarako hezteko bidea ematen du eta. Izan ere, gatazkarako eta gatazkaren eraldaketa positiborako hezkuntza balioetan oinarritutako hezkuntza da (Binaburo eta Muñoz, 2007).

Hori guztia lantzeko umearen garapen psikologikoa kontuan hartu behar da. Piageten (1932; Fuentes, Gamboa, Morales eta Retamalek aipatua, 2012) arabera, kooperazioaren autonomia edo moralitatea 10 urtetik aurrera hedatzen da. Hortaz, adin horrekin berdinen arteko kooperazioa sortzen da, eta umeak era egozentrikoan pentsatzeari uzten dio, arauak eta jokabideak baloratuz.

Gatazkarako hezkuntzari erreparatuta, hainbat autoreren artean, Kreidler (1984) adituak gatazken kudeaketa bakerako hezkuntzarantz zuzentzen du. Horretarako, bost ezaugarri dituen ikasgela baketsua sortu behar da:

- Kooperazioa: umeek batera lan egiten, elkarbanatzen eta besteengan konfiantza izaten ikasten dute.
- Komunikazioa: garrantzia handia daukate ingurunea arduraz behatzeak, zehaztasunez komunikatzeak eta entzuteak.
- Tolerantzia: ikasgelan desberdintasunak errespetatu eta balioetsi behar dira.
- Emozioen adierazpena: sentimenduak era eraikitzailean adierazi behar dira, autokontrola ezinbestekoa izanik.
- Gatazkaren kudeaketa: eskolan gatazkari kreatiboki erantzuteko teknikak eta trebetasunak landu behar dira.

Hori dela eta, bakean eta bizikidetzan heztea xedea izanik, proposa daiteke ikasgela baketsuaren ezaugarriak eskolan ezartzea. Zentzu horretan, ikasleen arteko gatazkak murriztuko dira, eta horiek sortzean era eraginkorrean konponduko dira. Halere, gatazkak ez dira deuseztatuko; hori ez da posiblea ezta desiragarria ere (Kreidler, 1984). Izan ere, eskola erakunde sozial bat da, beraz, Ovejerok (1989; Suarezek aipatua, 2008) dioen moduan, eskolaren funtzionamendua ezin da ulertu gatazkaren esangura kontuan hartu gabe.

1.3. Zer da gatazka?

Asko dira gatazkaren esanahiaren inguruan ikertu duten adituak. Ropersek (1995) gatazka interes-desberdintasun bat bezala ulertzen du, gutxienez elkarreragin sozialaren alde batek hautematen duena. Beraz, alde desberdinetako asmoak ez dira neurri berdinean burutuko. Ildo horretan, Infantek (1998) ondorioztatzen duen moduan, gatazka pertsona bi edo gehiagoren arteko helburuen bateraezintasuna da.

Bestalde, Fisher (1990; De Souza Barcelarrek aipatua, 2009) adituak gatazka intrapertsonal eta kolektiboaren arteko bereizketa egiten du. Gatazka intrapertsonalak norberaren barruan sortzen diren kontraesanak dira. Gatazka kolektiboak, berriz, pertsona biren edo gehiagoren artean sortutakoak dira. Horiek, pertsonen kopuruaren arabera, interpertsonal, intragrupal, intranazional, internazional edo mundialetan sailka daitezke. Hala ere, lan hau gatazka interpertsonaletan zentratuta dago, hots, pertsona bi edo gehiagoren arteko gatazketan (Girard eta Koch, 1996).

Horrez gain, kontuan hartu behar da aipatutako definizioek ez dutela erakusten gatazka positiboa edo negatiboa den; nahiz eta askotan, "interes-desberdintasun", "bateraezintasun" edo "kontraesan" hitzak konnotazio negatiboak izan (Girard eta Koch, 1996). Hala ere, gatazka berez ez da negatiboa ezta positiboa ere, gertakari natural bat baizik. Molinak (2005, 214. orr) baieztatzen duen moduan "el conflicto es una situación inherente al ser humano como "animal social", le es consustancial como miembro de un grupo social. [...] Aparece de manera social, como algo "natural" (cultural) en la especie humana".

Aldi berean, Castells (1998; Rodriguezek aipatua, 2007) autoreak gatazka gizartearen eta harreman interpertsonaleen egoera normala dela adierazi zuen. Alegia, nahiz eta ekiditen saiatu, gatazkak bere dinamika jarraitzen du, eta saihestezina da.

1.4. Gatazken kudeaketarako bideak

Behin gatazka gizakiaren egoera organikoa eta gertakari naturala dela ulertuta, gatazkari ematen zaizkion erantzunak aztertu behar dira. Hala, gatazkari ematen zaion erantzunaren ondorioz, askotan arazo larriak sortzen dira (Girard eta Koch, 1996). Izan ere, gatazka onartzeko eta horri aurre egiteko ezintasunak biolentziara eramán dezake, eta hortaz, talde guztiarentzako prozesu suntsitzailea eta negatiboa sortaraz dezake (Narejo eta Salazar, 2002).

Biolentzia kulturalki ikasi den giza jokabidea da, batak bestearen nagusitasuna erakusteko helburuz, eta boterearen erabilera desegokia eginez. Hau da, botereaz, inposizioaz eta besteen eskubideen deuseztapenez baliatuz, sortutako istiluan batek bere burua garailea izendatzen du (Suárez, 2008). Hala ere, nahiz eta biolentzia gatazka berriekin batera etorri, gatazkak berak ez du zertan biolentzia ekarri behar (Hernandez, 2002, Suárezek aipatua, 2008).

Gatazkari esker, balio bateraezinak aldi berean egotea gerta liteke, bi aldeen partetik irtenbide bat bilatzeko motibazioa sortuz. Hau da, gatazka aldaketa-tresna bezala ikusiz, komunikazio gardena errazteko aukera eman daiteke (Morales eta Yubero, 1999). Orduan, gatazka, errealitate komunak eta sendoak erabakitzeko eta sortzeko, oso baliagarria izan daitekeen aukera eraldatzaile bat bezala uler daiteke, bizikidetzaren berrezarpenari eta bake-harremanei lagunduz (Suárez, 2008).

Zentzu horretan, gakoa ez dago gatazka ukatzean, baizik eta eraldatzean eta hobetzeko aukera bezala hartzean. Ondorioz, gatazkari ematen zaion erantzunaren eta kudeaketaren arabera, gatazka aberasgarritzat edo suntsitzailetzat har daiteke. Era berean, kudeaketa horrek zehaztuko du gatazkak harreman interpersonala zein talde garapena aberastu duen (Molina, 2005).

Ikasleen arteko gatazkari erreparatuta, irakaslearen esku-hartzea erabakigarria da. Irakasleak gatazka bideratu behar du, hain zuzen ere, gatazkaren trataera probetxugarria garatzeko gai izan behar du. Hau da, irakasleak gatazkak era eraikitzailean konpondu eta kudeatu behar ditu, betiere gatazka ezabatu gabe eta ikasleei estrategia eraginkorrak emanaz. Horretarako, esperientzia esanguratsuak lortzeko bidea sortu behar du, gatazkak kudeatzeko tekniken bidez, hala nola, negoziazioa edo bitartekaritza (Narejo eta Salazar, 2002).

1.5. Gatazken kudeaketarako teknikak

Es imposible que cualquier iniciativa pueda eliminar todos los conflictos, ya que forman parte de la vida. Pero las escuelas pueden ayudar a los jóvenes a aprender que se puede y se debe elegir entre diferentes maneras de reaccionar ante un conflicto. Los alumnos pueden desarrollar habilidades de negociación y de resolución de problemas que les permitan considerar el conflicto no como una crisis sino como una ocasión de cambio creativo (Unicef, 1999, Pérez de Guzmán, Amador eta Vargasek aipatua, 2011, 2. orr).

Esaldi horrek bikain laburtzen du eskolan ezinbestekoa dela gatazken kudeaketarako trebetasunak eta teknikak lantzea. Modu horretan, ikasleak gatazkari aurre egiteko eta sortze-aldaketa lortzeko gai izango dira.

Gatazkek kudeatzerako orduan, eskolan bi eredu dira nagusi. Alde batetik, gatazkaren kudeaketa irakasleen aldetik zigorren edo autoritatearen bidez landu daiteke. Era horretan, ikasgelan tentsio giroa sortzeaz gain, harreman interpersonalak kutsatzen dira. Beste alde batetik, komunikazio eta pentsamendu sortzailea erabiltzen dituzten teknikak ditugu. Horiek borondatezko konponbide onargarriak sortarazten dituzte, eta harreman interpersonalak hobetzen dituzte (Narejo eta Salazar, 2002).

Girard, Rifkin eta Townleyk (1985; Girard eta Kochek aipatua, 1996) komunikazioan oinarritzen diren gatazken kudeaketarako funtsezko teknikak laburtu zituzten: negoziazioa, bitartekaritza, kontziliazioa, arbitratzea eta datuen bilketa. Horien artean, batez ere negoziazioa eta bitartekaritza bereiz daitezke (Arellano, 2007).

1.5.1. Negoziazioa

Negoziazioa bitartekorik behar ez duen teknika bakarra da. Teknika horretan aldeak zuzenean akordio batera iristen dira, euren kezka eta interes komunak kontuan hartuz. Hortaz, parte-hartzaileek bere beharrianak eta interesak adierazten dituzte, informazioa elkarrekin trukatzeko dute eta guztien beharriari erantzuten dieten konponbideak sortzen dituzte. Prozesu horrek entzute aktiboa eta pentsamendu sortzailea erabiltzen ditu, eztabaidan sartutakoek borondatezko zein onargarriak diren konponbideak sortzeko (Blattmann eta Jung, 2003). Hori dela eta, negoziazioa elkarbizitzarako oinarritzeko baliabidea da. Izan ere, indarkeriarekin amaitzeko ezaugarri eraginkor bat barne hartzen du: adostasuna (Narejo eta Salazar, 2002)

Bodine, Crawford eta Schumpf-ek (1994; Girard eta Kochek aipatua, 1996) azpimarratzen dute negoziatzaile trebe batek adostasuna bilatzen duela enpatiaren,

entzutearen eta ez epaitzearen bidez. Horrez gain, negoziatzailea adeitsua da eta espiritu kooperatiboa du. Aditu horien iritziz, negoziazio-prozedurak sei urrats ditu:

1. Negoziatzea adostea. Lehenengo eta behin, batera lan egiteko borondatea adierazi behar da.
2. Ikuspuntu desberdinak ezagutzea. Bigarren pausoa entzute aktiboaz, interesaz eta sentimenduen adierazpenaz baita argitze-galderez ere osatuta dago.
3. Interes komunak aurkitzea. Hirugarren pausoa erabakigarria da negoziazioaren prozesuan. Horretarako, informazioa elkartrukatzea funtsezkoa da, aukerak eta akordioak bilatzeko asmoz.
4. Denek irabazten duten aukerak sortzea. Hemen pentsamendu sortzailea da nagusi, hots, posible ahal diren konponbideetan pentsatu behar da, guztientzako onura bilatuz.
5. Aukerak ebaluatzea. Posibilitate guztien zerrenda bat sor daiteke, zer funtzionatu ahal duen, zer den hobea eta abar erabakitzeko. Horretarako, denen artean erabakitako irizpideak sor daitezke.
6. Akordio bat lantzea. Azkenik, konponbide bat erabakiko da, eta horretarako, alde bakoitzak besteari esan diezaioke zer den besteen eginbeharrekoa. Garrantzi handikoa da xehetasunak argi adieraztea, gaizkiulertuak egon ez daitezen.

Gatazken kudeaketarako lehenengo pausoa negoziazio teknika aurrera eramatea da, teknika horrek arazoa askatasun osoz konpontzeko aukera ematen du eta, parte-hartzaileei autokontrola eta auto-estimua sententzia sortuz. Hala ere, negoziazioa izaten ez denean, hurrengo pausoa bitartekari baten laguntza bilatzea da. Kasu horretan, bitartekaritza teknika erabiliko da (Girard eta Koch, 1996).

1.5.2. Bitartekaritza

Bitartekaritza negoziazioaren zabalkuntza da, eztabaidan sartutako alde desberdinek euren konfiantza bitartekari batengan uzten dute eta (Girard eta Koch, 1996). Hala ere, bitartekari horrek ez dauka inolako aginterik, ezta alde desberdinen partez erabakitzeko ahalmenik ere. Hortaz, alde desberdinek euren interesen arabera negoziatzen dute, egoeraren kontrola mantenduz (Jungman, 1998).

Bitartekaritza, orokorrean, bitartekariaren aurkezpenarekin hasten da, segurtasun giroa sortuz. Izan ere, ezinbestekoa da alde desberdinek bitartekarian konfiantza izatea (Girard eta Koch, 1996).

Bitartekariaren zereginari erreparatuz, Keltner (1991; Girard eta Kochek aipatua, 1996) autoreak dio bitartekariak alde desberdinak akordio batera iristen laguntzen dituela. Ildo horretatik, Iungman (1998) adituak bitartekariaren zeregina komunikazioa erraztea dela dio, eta gatazka zein den atzematen duela ere gehitzen du. Hori dela eta, gatazka baten aurrean, bitartekariak aldeei euren interesak adierazten, elkarguneak topatzen eta ebazpen bat lortzen laguntzen die, betiere komunikazioa erraztuz.

Eskola-bitartekaritzari dagokionez, bitartekariak hezkuntza-komunitatearen parte izan daitezke: ikasleak, irakasleak, langileak, gurasoak... Eurek formakuntza bat jaso ondoren, zerbitzua eskolaren kide guztiei eskaintzen da (Perez, 2002).

Irakasleei dagokienez, bitartekaritzak eredu berri bat eskaintzen du. Irakasleak, bitartekari bezala, besteak bizitzari buruzko erabaki garrantzitsuak hartzen lagundu ahal ditu. Horretarako, errespetua, kooperazioa eta justizia sustatu behar ditu, erabakiak hartzeko boterea erabili gabe (Girard eta Koch, 1996). Hortaz, bitartekaritza komunikazioa hobetzeko, giro atsegina sortzeko eta harremanak babesteko eskolan landu daitekeen teknika da (Narejo eta Salazar, 2002).

Amaitzeko, aintzat hartu behar da gatazken prebentzioa ez dagoela gatazkek eragozteari lotuta, heziketarekin baizik. Hau da, gaitasunak, trebetasunak, teknikak eta balioak eskolan landu behar dira gatazka bere osotasunean kudeatzeko asmoz (Cascon, 2000, Arellanok aipatua, 2007). Hortaz, funtsezkoa da eskolan bakerako eta ez biolentziarako hezkuntza jorratzea (Arellano, 2007).

2. Metodologia

Diseinatutako lanean, ikasgelan elkarbizitza eredu onuragarria eta baketsua sortzeko nahian, esku-hartze bat proposatu eta aurrera eramango da. Kreidlerrek (1984) eta Narejo eta Salazarrek (2002) ondorioztatzen duten moduan, gatazken kudeaketa eraginkorra lortzeko, eskolan funtsezkoa da bizikidetzarako eta bakerako teknikak eta estrategiak lantzea.

Esku-hartzea laugarren mailako 24 ikasleekin gauzatuko da. Kontuan hartu behar da, esparru teorikoan aipatu den bezala, 10 urterekin umearen garapenean aldaketa handia sortzen dela. Hori dela eta, adin hori paregabea da tolerantzian, justizian eta errespetuan oinarritutako bizikidetza eraikitzeke.

Lan honetan sortu eta burutuko den esku-hartzea ondorengo helburu orokorra oinarritzat hartuta diseinatu da: ikasleak gatazkak kudeatzeko teknikak eta estrategia baketsuak lantzea, ikasleengan nolabaiteko hobekuntza sortuz. Alegia, gatazkak era eraginkorrean kudeatzeko trebetasunak ezagutzea eta erabiltzea, emozioak modu egokian kudeatzea eta elkarlanean aritzen ikastea.

Horretarako, zazpi saiotako proposamena diseinatu da.

<i>SAIOAK</i>	<i>DISEINATUTAKO JARDUERAK</i>
1. SAIOA	1. Pre-test: "Amaia eta Mikelen istorioa"
2. SAIOA	2. Indarkeria-motak.
3. SAIOA	3. Gatazkatik adostasunera.
4. SAIOA	
5. SAIOA	4. Emozio-sarea.
6. SAIOA	5. Dekalogo baten sorkuntza.
7. SAIOA	6. Post-test: "Amaia eta Mikelen istorioa"

1. Taula: Diseinatutako jarduerak.

Proposamenaren saio kopuruari begira, guztira, sei jarduera dira, eta ordu bateko zazpi saiotan bananduta daude. Izan ere, bakoitzak ordu beteko iraupena du, hirugarren jarduera izan ezik. Luzeegia izateagatik, bi saiotan banandu da.

Esku-hartzeari erreparatuta, lehenik eta behin, ikasleek gatazkaren inguruan dituzten aurrezagutzak identifikatzeko nahian, pre-testa gauzatuko da. Jarduera, bi umek ikasgelan izandako gatazkari buruzko ipuin batean oinarrituta dago. Ipuina irakurri eta gero, ikasleei galdetegi bat emango zaie, euren aurrezagutzak ebaluatzeko asmoz.

Hurrengo jardueran, ikasleek indarkeria bizikidetza oztopatzen duen eragozpen nagusizat hartzea lortu nahi da, Suárezek (2008) dioen moduan, besteen eskubideak deuseztatzen dira eta. Hori guztia helarazteko nahian, istorio desberdinen bidez,

ikasleek indarkeria mota desberdinak eta subjektuen emozioak identifikatu beharko dituzte, indarkeria gatazkari erantzuteko era suntsitzailea dela hausnartuz.

Hirugarren jarduerari dagokionez, helburua negoziazio teknika ezagutzea eta erabiltzea da, gatazkari era baketsuan eta eraginkorren erantzuteko asmoz. Bitartekorik behar ez duenez, proposamenean negoziazio teknika lantzea aukeratu da. Izan ere, Girard eta Koçek (1996) ondorioztatzen duten legez, negoziazio teknikaren bitartez, ikasleen autonomia garatzen da. Hori lantzeko, bideo baten bidez, negoziazioaren ezaugarriak jorratuko dira. Gero, ikasle bakoitzak rol bat hartuko du, eta taldeka, ikasleek gatazka bati konponbide bat bilatuko diote.

Laugarren jardueran, Kreidlerrek (1984) aipatutako emozioen adierazpen eraikitzailea landu nahi da. Izan ere, Fernandez-Berrocal eta Ruiz Arandak (2008) adierazitakoa kontuan hartuta, emozioen kudeaketa hobea lortzeko, konpetentzia emozionala lantzen duten programak eta jarduerak egin behar dira. Hori guztia jorratzeko, armiarma-sarea dinamika gauzatuko da.

Bosgarren jarduerari dagokionez, xedea gatazka baten aurrean era baketsuan jarraitu ahal diren pausoak identifikatzea da. Narejo eta Salazarrek (2002) agertzen duten legez, gatazken kudeaketarako pentsamendu sortzailea behar dituzten teknikak garatzea lortu nahi da. Hori lantzeko, bideo bat ikusi ondoren, aurreko saioan landutakoa gogoratuko da, eta amaieran, dekalogo bat sortuko da.

Aurreko jarduerak amaitzerakoan, post-test ariketa gauzatuko da. Jarduera pre-testaren berdina izango da. Zentzu horretan, ikasleen ezagutzak esku-hartzearen aurretik eta ondoren aldera daitezke, eta era berean, esku-hartzeak ikasleengan hobekuntzak eragin dituen antzeman daiteke.

Horrez gain, Heziberri 2020 Planaren Oinarrizko Konpetentziei erreparatuta, diseinatutako proposamenean bi konpetentzia landuko dira nagusiki: elkarbizitzarako konpetentzia eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. Alde batetik, pertsonen arteko egoeretan, guztien ongirako parte hartzea eta norberaren zein besteen eskubideak errespetatzea landuko da. Beste aldetik, herritar moduan, era autonomoan jardutea jorratuko da, gizarte demokratikoa, solidarioa eta inklusiboa garatzen laguntzeko.

3. Lanaren garapena: implementazio fasea

Atal honetan esku-hartzearen jardueren deskribapena azalduko da, baita praktikan jartzerakoan ikasleek izan duten jarrera ere. Aldez aurretik aipatu dudan bezala, proposatu den esku-hartze hau Lehen Hezkuntzako 4. mailara zuzenduta dago, xede nagusia izanik ikasleak gatazkak kudeatzeko teknikak eta estrategia baketsuak lantzea.

1. PRE-TEST: "Amaia eta Mikelen istorioa"

Helburua: Ikasleen aurre ideiak, iritziak eta usteak identifikatzea, gatazkaren kudeaketari dagokionez.

Edukiak: Indarkeria, gatazken kudeaketa eta emozioen adierazpena.

Jardueraren deskribapena: Lehenengo eta behin, ikasleei ipuin bat ozen kontatuko zaie. Ipuina bi umek ikasgelan izandako gatazkari buruzkoa da. Ondoren, ikaskide bakoitzari fitxa bat emango zaio, kontatutako ipuinarekin eta galdetegi batekin. Umek, indibidualki, istorioa irakurriko dute eta galdetegia burutuko dute. Amaitzean, fitxa guztiak jasoko dira. (*Ikusi 1. eranskina*)

Praktikan jartzea: Ikasleak ipuina entzuten eta galdetegia egiten oso adi egon dira. Gainera, gehienak bi pertsonaien erreakzioekin ez dira bat etorri. Orokorrean ez dute arazorik izan galderak erantzuteko, nahiz eta batzuk hiztegiarekin arazoak izan, hala nola, indarkeria, gorrotoa eta amorru hitzekin. Hortaz, hitz horiek azaldu behar izan dira.

2. INDARKERIA MOTAK

Helburua: Indarkeria zer den zehaztea, indarkeria mota desberdinak identifikatzea (berbala, fisikoa eta soziala) eta indarkeria gatazkei erantzuteko era suntsitzailea dela hausnartzea.

Edukiak: Indarkeria motak eta arazoan inplikaturako subjektuen emozioak.

Jardueraren deskribapena: Lehenik, brainstorming bat gauzatuko da, ikasleen ideia guztiak arbelean idatziz: *Zer da indarkeria?* Ondoren, hiru istorio erakutsiko dira. Istorio bakoitza ikasgelan gertatutako ume batzuen arteko gatazkari buruzkoa da, non bakoitzean indarkeria mota desberdina erabili den: fisikoa, berbala eta soziala. Talde bakoitzari istorio bera esleituko zaio. Hala ere, ume bakoitzari fitxa bat emango zaio,

esleitutako istorioarekin eta ariketa motz batzuekin. Ariketa horien asmoa istorioan agerturiko indarkeria mota identifikatzea da, baita subjektuen emozioak ere. Lehenengo zatian, bakarka, ume bakoitzak istorioa irakurri eta ariketak erantzungo ditu. Era dinamikoagoan egiteko, ikasleei bakarrik istorioaren lehenengo zatia emango zaie. Istorioaren bigarren zatia, ordea, gutun-azal batean sartutako papertxo desberdinetan emango zaie. Hortaz, eurek bakarka, istorioa ordenatu behar izango dute. *(Ikusi 2. eranskina)*

Banakako zatia egin ondoren, ideia guztiak partekatuko dira. Lehenengo eta behin, irakasleak lehenengo istorioa norbaiti ozen irakurtzeko eskatuko dio. Gero, istorio bakoitzaren indarkeria mota eta subjektuen emozioak partekatzera ekingo zaio. Horretarako, galdera hauek botako dira: *-Nork jarri du lehenengo egoeran indarkeria dagoela? Nork ez? (Eskuak altxatu) -Zergatik bai/ ez? -Nola sentituko dira pertsonaiak?*

Ikasleak euren ideiak esan eta gero, azpimarratuko da lehenengo istorioan indarkeria berbala dagoela, irainak eta mespretxuak agertzen dira eta. Gauza bera egingo da bigarren eta hirugarren istorioekin. Hau da, bigarren istorioan nabarmenduko da biolentzia fisikoa dagoela, ikasle batzuk ikaskide bat jotzen dute eta. Hirugarrenean, aldiz, biolentzia soziala, ikasle bat baztertzen da eta.

Amaitzeko, irakaslearen eta ikasleen artean informazioa elkartrukatu da, euren esperientziei, ideiei eta abar mintzatuz. Indarkeria zer den zehaztuko da, bai indarkeria fisikoa, bai berbala eta bai soziala biolentzia direla azpimarratuz. Horrez gain, azpimarratuko da indarkeriak ez duela arazo bat konpontzen, baizik eta areagotzen. Horrekin batera, garrantzia handia dauka nabarmentzea ezin dela inoiz onartu ezta jasan norbaitek gurekin indarkeria erabiltzea, hortaz, biktima nahiz ikuslea izan, salatzeke gai izan behar gara. Bestetik, gure jarrerak besteengan eragina izaten duela nabarmenduko da. Hori dela eta, emozioak eta bulkadak kudeatu behar dira, inor ez mintzeko.

Praktikan jartzea: Ikasleek indarkeria fisikoa arazorik gabe identifikatu dute. Bestetik, indarkeria berbala identifikatzea gehiago kostatu zaie, irainak eta mespretxuak ez zituztelako indarkeriatzat hartzen. Hala ere, zailtasun handienak indarkeria soziala identifikatzerakoan izan dituzte. Hasieran, ikasle batzuk pertsona bat baztertzea indarkeria ez dela argudiatzen saiatu dira, nahiz eta azkenean, subjektuen emozioak identifikatu eta gero, pertsona bat baztertzeak mina handia sortarazten duela ulertu

duten. Hortaz, bukatzerakoan ikasleek bazterketa indarkeriatzat hartu dute. Horrez gain, aipatzekoa da ere ikasleen partetik partaidetza oso handia izan dela, batez ere azkenengo zatian. Ikasleak eurek izandako esperientziak azaltzera animatu dira, egoera horietan egondako indarkeria identifikatuz.

3. GATAZKATIK ADOSTASUNERA

Helburua: Negoziazio teknika ezagutzea eta erabiltzea, eta gatazkak kudeatzeko orduan, negoziazioaren garrantziari buruz hausnartzea, adostasuna, komunikazioa, tolerantzia eta errespetua nabarmenduz.

Edukiak: Negoziazioaren ezaugarriak eta bere jardunbidea. Adostasuna, errespetua, tolerantzia, komunikazioa, eta pentsamendu-sortzailea.

Jardueraren deskribapena: Jarduera hau bi saio desberdinetan bananduko da. Lehenengo saioari dagokionez, gatazkak kudeatzeko asmoz, negoziazioaren ezaugarriak azpimarratuko dira. Ondoren, taldeka, gatazka bati era eraginkorrean eman ahal zaion erantzuna landuko da. Negoziazioa zer den azaltzeko, bideo bat jarriko da. Bideoa nik sortutakoa da. Esteka eta gidoia eranskinetan aurki daiteke. (*Ikusi 3. eranskina*)

Bideoa ikusi eta gero, ikasleen ideiak partekatzera ekingo zaio. Horretarako, honako galdera hauek botako dira, eta ikasleen ideiak arbelean idatziko dira: *Mikelek eta Amaiak arazoa konpondu dute? Nola konpondu dute?*

Ikasleen ideien artean (ez badira agertu, gehituko dira) ezaugarri hauek nabarmenduko dira: adostasuna, errespetua, elkar ulertzeko prest, akordio batera iritsi, amore egiteko prest, hitz egiteko txandak errespetatu, eta batak besteari entzun. Horiek negoziazioaren ezaugarriak direla azpimarratuko da.

Ondoren, gatazkei era eraginkorrean erantzuten lantzeko, ikasleek aurreko saioan landutako istorioak berriro jorratuko dituzte. Talde bakoitzari aurreko saioan jorratutako istorio bera esleituko zaio, eta taldeka, negoziazio teknika erabiliz, esleituriko gatazkari konponbide bat bilatu beharko zaio. Horretarako, lehenengo eta behin, ikasleei fitxa bat emango zaie, non istorioa eta bi galdera agertzen diren. Lehenik, lehenengo galdera erantzungo dute. Bigarren galdera erantzuteko, ordea, aurretik aipatutako negoziazioaren ezaugarrien bidez, taldekideek istorioan azaldutako gatazka konpondu behar izango dute, ebazpena euren kabuz pentsatuz. Hori gauzatzeko, bakoitzari rol bat

emango zaio. Hots, ikaskide bakoitza istorioaren pertsonaia bat izango da. Beraz, role-playing teknika burutuko da. (*Ikusi 4. eranskina*)

Bigarren saioari dagokionez, negoziazio teknikaren abiaraztea landuko da. Horretarako, ikastalde bakoitzak aurreko saioan pentsatutako gatazkaren ebazpena antzeztuko du. Banandutako rolak errespetatuko dituzte, eta hasieran, tarte bat utziko da ebazpenaren antzezpena entseatzeko. Denok prest egoterakoan, ikasleak taldeka arbelera aterako dira, eta antzezpena ikasle guztien aurrean egingo dute.

Talde bakoitzak bere antzezpena egin ostean, denon artean egiaztatuko da egindako arazoaren ebazpenak lehen aipatutako negoziazioaren ezaugarriak betetzen dituen; hala nola, errespetua, elkar ulertzeko prest, akordio batera iristea, amore egiteko prest, hitz egiteko txandak errespetatzea, batak besteari entzutea, eta adostasuna.

Praktikan jartzea: Ikasleek bideoa erraz ulertu dute, eta gehienek negoziazioaren ezaugarriak identifikatzerakoan jarrera parte-hartzailea izan dute. Hala ere, gatazkari erantzun bat ematerakoan, ikasleek hasieran ez dute ulertu zer den pertsona bakoitzak hartu beharreko rola, rolak istorio baten gidoiarekin nahastuz. Hori dela eta, gidoiaren eta rolaren arteko desberdintasuna azaldu behar izan da. Beste aldetik, ikastalde batzuk pixka bat galduta sentitu dira, arazoa konpontzeko ideia eta iniziatiba gutxirekin. Hori dela eta, momentu horietan ikasleak gidatzea ezinbestekoa izan da, batez ere ideiak ematen eta zalantzak argitzen. Geroago, dena erraztasun handiz atera da. Ikasleek antzezpena arazorik gabe egin dute, era egokian parte hartuz.

4. EMOZIO SAREA

Helburua: Ikasgelan emozioen adierazpen eraikitzailea sortzea, gure emozioak eta jarduteko erak besteak eragiten dituztela hausnartuz.

Edukiak: Emozioen adierazpen eraikitzailea eta ikaskideen arteko loturak.

Jardueraren deskribapena: Lehenik eta behin, ikasgelan gune zabal bat osatzeko, mahaiak eta aulkiak iskinetara mugituko dira. Guztion artean, zutik borobil bat eratuko da. Irakaslea, artile harila batekin, zer sentitzen duen eta zergatik adierazten hasiko da. Bukatzean, irakasleak artile zati bat eutsiko du eta artile harila beste bati botako dio. Orduan, harila jasotzen duenak nola sentitzen den eta zergatik adieraziko du, eta beste bati botako dio harila. Horrela ikaskide guztiekin amaitu arte.

Bukatzean, ikasleei galdetuko zaie sare horrek zer adierazten duen. Ikasleek hitz egin ostean, dinamikarekin lotuta dauden hainbat gauza azalduko dira. Lehenengoz, aipatuko da sareak ikaskide guztion artean dauden konexio eta lotura anitzak adierazten dituela. Hau da, ikaskide guztiak eragina dute ikasgelako erritmoan eta giroan. Hortaz, gu triste, pozik, urduri, beldurtuta, haserretuta, eta abar egoterakoan, besteengan eragina izango du, besteek gure emozioak nabaritzen dituzte eta. Bigarrenik, gure emozioak adieraztea ezinbestekoa dela azpimarratuko da, baita gure emozioak bideratu behar ditugula ere, gure jarduteko era erregulatuz, betiere inor minduz.

Praktikan jartzea: Primerako eguraldia egin duenez, erabaki da dinamika hau jolastokian egitea. Ikasleak oso pozik jarri dira, ez dutelako inoiz ariketa bat kanpoan egin, ezta horrelako dinamika bat burutu. Hala ere, horrek urduritasun giroa sortu du. Hasieran ikasleek euren artean luzez hitz egin dute, eta artile-hariarekin jolastu dute. Hori dela eta, dinamika gelditu behar izan da, talde handiari azkenengo abisua emanaz, eta berriro ere dinamika hasiz. Horrek dinamika astunagoa bilakatzea sortu du, baina aldi berean, ikasleen portaera hobetu da. Bestalde, orokorrean ikasleek ez dute zailtasunik izan euren sentimenduak adierazteko, eta sareak adierazitakoa erraz ulertzeko gai izan dira.

5. DEKALOGO BATEN SORKUNTZA

Helburua: Gatazka baten aurrean era baketsu batean jarraitu ahal diren pausoak identifikatzea, pentsamendu sortzailea sustatuz.

Edukiak: Gatazkaren kudeaketarako teknikak eta estrategiak.

Jardueraren deskribapena: Lehenengo eta behin, "Bridge" film laburra ikusiko da. Gero, ikaskide guztien ideiak denon artean partekatuko dira. Horretarako, honako galdera hauek botako dira: *Lehenengo bi animaliek arazoa konpondu dute? Zergatik ez? Bigarren bi animaliek arazoa konpondu dute? Zergatik bai? Zerk laguntzen digu arazo bat konpontzen?* Ondoren, denon artean ondorioztatuko da negoziazioak gatazka bat kudeatzen eta ebazten laguntzen duela. Indarkeria erabiltzeak ordea, arazoa areagotzen du, bideoan ikus daitekeen moduan.

Hori egin eta gero, dekalogo baten sorkuntzari ekingo zaio. Ikasleei galdetuko zaie zer egin ahal den ikaskide batekin gatazka bat izaterakoan, arazoa konpontzeko asmoz. Galderari erantzuteko, ikasleek taldeka lan egingo dute, hain zuzen ere, orri birakaria teknika jorratuz.

Horretarako, lehenik, talde bakoitzari orri bat emango zaio. Taldeko koordinatzailea ideia bat idazten hasiko da. Bukatzean, koordinatzaileak orria erlojuaren orratzen norabidean ondoan duenari pasatuko dio, folioan idatz dezan. Aintzat hartu behar da taldeko kide batek idazten duenean, gainerako kideak adi egongo direla. Izan ere, ikaskideak behar badu, taldekideek laguntza eskainiko diote, guztiak baitira taldean sortzen denaren erantzule. Horrez gain, taldekide guztiek egitekoan parte hartu ondoren, beste erronda bat has daiteke. Ariketak, berriz, taldekide guztiak ideiarik gabe geratu arte iraungo du.

Azkenik, taldeko ideiak partekatuko dira. Horretarako, talde bakoitzaren bozeramaileak, orri birakaria teknikaren bidez, taldean agerturiko ideiak esango ditu. Orduan, taldeko ideia guztiak arbelean idatziko dira. Behin ideia guztiak arbelean daudela, batera irakurri eta komentatuko dira, ideia horiekiko adostasuna edo desadostasuna adieraziz. Gero, irakasleak horiek kartoi mehe batean idatziko ditu. Beraz, "dekalogo" sortuko da, hots, gatazka baten aurrean jarraitu ahal diren urratsak.

Praktikan jartzea: Ikasleek film laburraren esanahia erraz ulertu dute, guztiok ondorioztatuz negoziazioak, edo adostasun batera heltzeak, gatazkak kudeatzen laguntzen duela. Horrez gain, orri birakaria teknika gauzatzerakoan, talde gehienek jarrera parte-hartzailea izan dute. Aipatzekoa da ere, ikasleei ideiak emateko nahian, aurreko saioetan landutakoa gainetik aipatu dela. Hala ere, ikasleei gidatzeko asmoz, ezinbestekoa izan da talde txikietatik pasatzea, adibidez, ideiarik gabe geratzen zirenean. Geroago, ikastaldeetako ideiak arbelean idazterakoan, ideia gehienak talde desberdinetan errepikatu dira, beraz, "dekalogo" oso erraz gauzatu da, guztiok idatzitakoarekin ados egonez.

6. POST-TEST: "Mikel eta Amaia-ren istorioa"

Helburua: Gatazkaren kudeaketari dagokionez, ikasleen ezagutzak identifikatzea.

Edukiak: Indarkeria, gatazken kudeaketa eta emozioen adierazpena.

Jardueraren deskribapena: Lehenengo eta behin, ikasleei ipuin bat ozen kontatuko zaie. Ipuina bi umek ikasgelan izandako gatazkari buruz da. Ondoren, ikaskide bakoitzari fitxa bat emango zaio, kontatutako ipuinarekin eta galdetegi batekin. Umeek, indibidualki, istorioa irakurriko dute eta galdetegia burutuko dute. Amaitzean, fitxa guztiak jasoko dira. (*Ikusi 1. eranskina*)


Praktikan jartzea: Ikasleek ipuina gogoratzen zuten, beraz, entzun ondoren, batzuk galdetegia egiteari ekin diote, euren kabuz irakurri gabe. Bestetik, orokorrean, ez dute arazoak izan galdetegia burutzeko, oraingoan hiztegia ondo ulertuz.

4. Emaidzak

Lanaren helburu nagusia, inplementatutako esku-hartzearen bidez, gatazkak kudeatzeko teknikak eta estrategia baketsuak lantzea da, aldi berean, gatazkaren kudeaketaren inguruan ikasleengan nolabaiteko hobekuntza lortzeko nahian. Helburua lortu den ezagutzeko, proposamen didaktikoan gauzatutako pre-testaren eta post-testaren emaitzak eta izandako aldaketak aztertuko dira.


Datuak aztertzeko, pre-testaren eta post-testaren arteko aldeari erreparatuko zaio. Emaidzak grafikoetan adieraziko dira, euren artean egondako aldaketak erakutsiz. (*Ikusi 5. eranskina*)

Grafikoetan antzematen den moduan, guztietan aldaketak egon dira, eta hoberantz egin dute. Hala ere, ez da erantzun zuzenen %100-a lortu. Hortaz, *1. grafikoan* ikus daitekeen moduan, nahiz eta ikasle gehienak Amaia eta Mikelen erreakzioekin ados ez egon eta horietan indarkeria identifikatu, esku-hartzearen ondoren oraindik ere okertu diren zenbait ikasle daude. Dena den, esan beharra dago, esku-hartzearen 2. jarduera gauzatzekoan, ikasle batzuk indarkeria berbala eta soziala identifikatzeko zailtasunak izan dituztela, hortaz, ikasle guztiek indarkeria-mota desberdinak barneratu ez dituztela antzeman daiteke.




1. grafikoa: pre-test eta post-testaren emaitzak I

Aipatzekoa da ere erantzun irekietan egon den aldaketa, batez ere, kontzeptu eta azalpenei begira. Post-testean, 2. eta 3. grafikoan antzematen den legez, Amaiak eta Mikelek arazoa konpon dezaten azalpen berriak eman dira, hala nola, *sentimenduak adieraziz* eta *jokabide bortitzak deuseztatuz*. Aldi berean, pre-testean emandako azalpen batzuk post-testean desagertu dira, esate baterako, *ez haserretuz*, *Amaia lasaituz* eta *lan gehiago eginez*. Aldaketa horrek esku-hartzearen landutakoa islatzen du, hain zuzen ere, gatazkak kudeatzeko negoziazio teknikaren ezagupena eta abiaraztea.




2. grafikoa: pre-test eta post-testaren emaitzak II




3. grafikoa: pre-test eta post-testaren emaitzak III

Ildo horretan, ikasleen esperientziari lotutako galderetan ere azalpen eta kontzeptu berriak agertu dira. Izan ere, 4. grafikoa ikus daitekeen moduan, jorratutako gatazken kudeaketarako teknikak ikasleek euren arazoak konpontzeko, post-testean aipatu dira, adibidez, *akordio batera iritsi, gustatzen ez zaidana azaldu, sentimenduak adierazi eta lasaitu*. Beste aldetik, pre-testean agertutako kontzeptu batzuk ez dira post-testean agertu, batez ere, autonomia faltarekin eta arazoari aurre egiteko zailtasunekin lotuta; hala nola, *gertatu dena ahaztu, pertsona baztertu eta andereñoari esan*. Horren aurrean, esku-hartzearen eraginez, hainbat ikaslek gatazka baten aurrean teknika baketsuak erabiltzeko gai direla igarri daiteke, pentsamendu sortzailea eta autonomia eskuratuz.



4. grafikoa: pre-testaren eta post-testaren emaitzak IV

Emaitzekin bukatzeko, sentimenduen adierazpenari erreparatuko zaio, non aldaketarik nabarmenena eman den. Izan ere, 5. *grafikoan* antzematen den moduan, pre-testean ikasleen %25ak aitortu du bere sentimenduak adierazi dituela arazo bat izan duen azken aldian. Post-testean, aldiz, sentimenduak adierazi dituen ikasleen kopurua %54,16ra arte igo da, hobekuntza esanguratsua izanik. Hala ere, nahiz eta aldaketarik nabarmena izan, kontuan hartu behar da ia ikasleen erdiak ikaskide batekin arazo bat izaterakoan ez dituela bere sentimenduak adierazi. Emaitza horiek 5. jarduerarekin lotura izan dezakete, hau da, sentimenduen adierazpena landu den jarduerarekin. Izan ere, jolastokian burututako dinamika horrek sortutako urduritasunak jarduerarekin gelditzea eta berriro hastea eskatu zuen, dinamika astunagoa bihurtuz.



5. *grafikoa*: pre-testaren eta post-testaren emaitzak V

5. Ondorioak

Esku-hartzearen emaitzak aztertuta, ondoriozta daiteke lanaren helburu nagusia bete dela. Hau da, gatazkak kudeatzeko teknika eta estrategia baketsuak landu dira, ikasleengan hobekuntza bat sortuz.

Hobekuntza hori, ordea, ez da ume guztiengan eman. Esan beharra dago proposaturiko esku-hartzea oso motza izan dela. Izan ere, Piagetek eta beste autorek ondorioztatzen duten bezala, denbora luzea behar da estadio batetik bestera igarotzeko, hau da, nortasunari dagokion aldaketak sortarazteko. Beste aldetik, sortu diren hobekuntzei erreparatuta, ezin da ziurtatu behin-betikoak izango direnik. Izan ere, aipatu den moduan, alderdi emozionalean aldaketak sortzeko, epe luzea behar da. Gainera, kontuan hartu behar da ikasleek askotan irakasleak ontzat hartzen duena erantzuten dutela.

Hala eta guztiz ere, esku-hartzearen baliagarritasuna egiazta daiteke, azterturiko alderdi guztiek hoberantz egin dute eta, umeengan nolabaiteko eragina sortuz. Aipagarria da ere hainbat ikaslek euren arazoen ebazpenerako, esku-hartzean landutako ideiak agertarazi dituztela. Zentzu horretan, ikasle askok gatazken kudeaketarako teknika eta estrategiak barneratu dituztela baieztatu daiteke, ikasleek trebetasun horiek ezagutzen eta erabiltzen dituzte eta. Era berean, sentimenduen adierazpenari begira, aldaketa esanguratsua sortu da, zenbait ikaslek emozioak onartzearen, adieraztearen eta kudeatzearen garrantziaz jabeturik egonez.

Hori dela eta, etorkizunerako, diseinatutako eta burututako esku-hartzea onuragarria izan daitekeela ondorioztatu daiteke. Hurrengo baterako, aldiz, komenigarria izango litzateke proposamen didaktikoa luzatzea, epe luzean aldaketa nabarmenagoak sor daitezke eta. Horrez gain, nahiz eta emozioen adierazpenean aldaketak izan, kontuan izanda ikasleen erdiak arazo bat izaterakoan euren sentimenduak adierazten ez dituela, ondo legoke emozioen adierazpen eta kudeaketari garrantzi handiagoa ematea. Hortaz, hurrengo esku-hartzean, emozioen inguruko jarduera gehiago planteatu beharko lirateke. Izan ere, emozioen kudeaketa onak gatazken ebazpen egokia dakar.

Laburbilduz, esparru teorikoan azaldu den moduan, eskolan bizikidetzaren eredu onuragarria sortzeko, gatazken kudeaketan eta balioetan heztearen funtsezkoa da. Hala, hezkuntza integrala burutzeko asmoz, gaitasun emozionalean hezten dituzten esku-hartzeak aurrera eramatea beharrezkoa da.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Arellano, N. (2007). La violencia escolar y la provención del conflicto. *Orbis: revista de Ciencias Humanas*, 3(7), 23-45.
- Binaburo, J. A. eta Muñoz, B. (2007). *Educación desde el conflicto. Guía para la mediación escolar*. Barcelona: Ceac.
- Blattmann, C. eta Jung, J. E. (2003). Negociación para la resolución de conflictos interpersonales en un grupo de alumnos de secundaria. *Ajayu Órgano de Difusión Científica del Departamento de Psicología UCBSA*, 1(2), 1-8.
- Cabezas, M. (2013). Juicios morales y fronteras biológicas: más allá de la frontera razón / emoción. *Arbor*, 188(762), a052.
- Calvo, P., Marrero, G., eta García, A. (2004). La mediación: técnica de resolución de conflictos en contextos escolares. *Anuario de Filosofía, Psicología y Sociología*, 7, 35-48.

- Chian Tey, T. [Ting] (2010) Bridge. Martxoaren 4an berreskuratuta: <https://vimeo.com/27299211>
- De Souza Barcelar, L. (2009). Una mirada genérica de los conflictos. *Contribuciones a las Ciencias Sociales*.
- Fernández-Berrocal, P. eta Ruiz Aranda, D. (2008). La inteligencia emocional en la educación. *Revista Electrónica de Investigación Psicoeducativa*, 6(2), 421-436.
- Filella, G. (2015). Aprendamos a convivir. I Congreso de educación emocional: Navarra.
- Fuentes, R., Gamboa, J., Morales, K. eta Retamal, N. (2012). Jean Piaget, aportes a la educación del desarrollo del juicio moral para el siglo XXI. *Convergencia Educativa*, 1, 55-69.
- Girard, K. eta Koch, S. J. (1996). *Conflict Resolution in the Schools: A Manual for Educators*. San Francisco: Jossey-Bass Publishers. (Gaztelera-zko itzulpena: Resolución de conflictos en las escuelas. Manual para educadores, 1997)
- Gómez, F. (2007). *Creciendo en valores*. Bogotá: Editorial San Pablo.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15).
- Infante, E. (1998). Sobre la definición del conflicto interpersonal: aplicación del cluster analysis al estudio semántico. *Revista de psicología Social*, 13(3), 485-493.
- Iungman, S. (1998). *La mediación escolar*. Buenos Aires: Lugar Editorial.
- Juárez, J. (2007). Hacia una educación posible: valores, virtudes y actitudes en la escuela. *Revista Ciencias de la Educación*, XXVII, 3.
- Kreidler, W. J. (1984) Creative conflict resolution. *Glenview, IL: Scott, Foresman & Company*. (Gaztelera-zko itzulpena: La resolución creativa de conflictos: manual de actividades, 2001)
- Miras, M. (1990). Afectos, emociones, atribuciones y expectativas: el sentido del aprendizaje escolar. In *Desarrollo psicológico y educación. II Psicología de la educación escolar*. 309-330. Madrid: Alianza Editorial.
- Molina, F. (2005). Nuevos conflictos sociales y su presencia educativa. Análisis sociológico y reflexiones para la intervención. *Cultura y educación*, 17(3), 213-223.
- Morales, J. F. eta Yubero, S. (1999). *El grupo y sus conflictos*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla La Mancha.
- Narejo, N. eta Salazar, M. (2002). Vías para abordar los conflictos en el aula. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 5(4), 16.
- Ortiz, J. M. P. (2003). La educación en valores y su práctica en el aula. *Tendencias pedagógicas*, 8, 69-88.

- Otero, M. R. (2006). Emociones, Sentimientos y Razonamientos en Didáctica de las Ciencias. *Revista electrónica de investigación en educación en ciencias*, 1(1), 24-53.
- Pérez de Guzmán, V., Amador, L. eta Vargas, M. (2011). Resolución de conflictos en las aulas: un análisis desde la Investigación-Acción. *Pedagogía social: revista interuniversitaria*, 18, 99-114.
- Perez, M. J. (2003). La mediación escolar, proceso de suma de dos modelos de intervención mediadora en la escuela: los programas de mediación escolar y la mediación social intercultural a su paso por instituciones educativas. *Educación y futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 8, 91-100.
- Rodríguez, R. (2007). Los Planes de Convivencia como herramientas para prevenir los conflictos escolares. *Revista Mex. Noviembre consultada en la Word Wild web EBSCO*, 12.
- Ropers, N. (1995). *Peaceful Intervention: Structures, Processes, and Strategies for the Constructive Regulation of Ethnopolitical Conflicts*. Berlin: Berghof Research Center for Constructive Conflict Management.
- Suárez, O. E. (2008). La mediación y la visión positiva del conflicto en el aula: marco para una pedagogía de la convivencia. *Diversitas*, 4(1), 187-199.
- Trias de Bes, F. (2016). Razón e instinto. *El País*.